

KOMUNITATEAREN BABESLETZA

Komunitatearen Babesletzako programek, herritarrek, eta iraunkorki bizi diren pertsonak, errefuxiatuen birkokatze ekimenetan zuzenean parte hartzeko aukera ematen dute.

Pertsonak, errefuxiatu etorri berriei babes finantzarioa, emozionala eta birkokatze prozesuan laguntza eta babesa eskaintzeko konpromisoa duten taldeak osa ditzakete, iritsi berri diren errefuxiatuak herrialde berriaren bizitzan integratzen laguntzeko.

Komunitatearen Babesletza, gobernuak eta komunitateak, errefuxiatuen birkokatze prozesu horretan elkar-lan estuan jarduteko aukera da. Hau benetan eraginkorra izango da, soilik, lankidetzak benetakoa bada, eta ahal den guztian, gobernuak eta komunitateko taldeek konprometitzen badira elkarrekin lan egitera. Bai maila altuko programen diseinuan zein gai zehatzagoetan, kasu partikularrek planteatzen dituzten erronkei irtenbidea emateko momentuan.

Konfiantza eta errespetuzko harremana garatzea erronka handienetakoa da, eta, aldi berean, komunitatearen babesletzako programa hauen alderdi aberasgarrienetako bat.



BABESA VERSUS KANADA

Kanadako errefuxiatuen babesletza pribatuko programak (herritar kanadarrak edo bertan iraunkorki bizi direnak), PSR (ingelesezko siglak), errefuxiatuek birkokatze prozesu horretan aukera gehiago eskaintzeko konpromisoa bere gain hartzea oso baliagarria izan da 1976an Kanadako Immigrazio Legearen babesean jaio zenetik; legea 1978an jarri zen martxan.



Babes pribatua baimentzen zuten xedapenak 1979an hasi ziren gauzatzen, ni urtetan zehar, gutxi gorabehera, 34.000 errefuxiatu vietnamdar, kanbodiarrak eta laosiar laguntzeko 7000 talde baino gehiago mobilizatu zirenean.

Ottawan bakarrik, milaka kanadarrek bilera publikoa egin zuten Asian gertatzen ari zen krisian nola lagundu

zezaketan ezagutzeko. Ottawako udalak berehala onartu zuen Project 4000, gobernu kanpoko erakunde bat sortzeko beharrezko finantziarioa. Erakunde honek, babes talde eta errefuxiatu babestuei laguntza eskaintzea zuen helburu.

1986an, errefuxiatuen krisiari erantzunez nazio-mailan kanadarrek erakutsitako sostengu uholde horrek "Kanadako jendeak" Nansen Saria lortu zuen, errefuxiatuei emandako zerbitzuengatik ezarritako Nazio Batuen saria. Herrialde bateko biztanleria osoak sari bat jaso duen lehen aldia eta bakarra da.

PSR programaren erabilgarritasuna eta malgutasuna, une zailean, birkokatze hainbat ekimenetan eredu gisa azaldu ziren. Adibidez, Kanadak, komunitate ismaelitarekin (Islam-aren korrante chii-a) bat

egin zuen Project Focus Afganistan proiektuaren bidez, 1994tik 1998ra 1.800 errefuxiatu afganiar inguru modu pribatuan babesteko.

2015ean kanadarrek PSR programara jo zuten, euren herrialdeetako indarkeria eta ezegonkortasun zibiletik ihesi zetozen siriar eta irakiarren segurtasuna bermatzeko. PSR programaren baitan, 18 hilabetetan, herrialde osoko 400 komunitateetako kanadarrek 18.000 errefuxiatu siriar ingururi laguntza ekonomikoa, emozionala eta komunitarioa emateko konpromisoa hartu zuten.

Sortu zenetik, PSR programarekin, gutxi gorabehera 300.000 errefuxiatu birkokatu dira Kanadan. Gainera, Kanadako ehunka komunitate irabazten irten dira, babesletzaren eskutik, errefuxiatuei harrera egiteko indarrak batu dituztenean.



ISPILU BAT NON ISLATU

Kanadako errefuxiatuen birkokatze-programak eta babesle pribatuek betetzen duten zeregin bereziak, agerian utzi dute lankidetzaren emankorra eta iraunkorra. Sortu zenetik ehunka mila errefuxiatu babestu ditu eta Kanadako gizarte-sarea aberastu errefuxiatuen birkokatzeekin lortu dituzten emaitzen bitartez.

Kanadako programa nabarmen garatu da hasi zenetik, eta gobernuak eta gizarte zibilak, elkarrekin, errefuxiatuei babes eskaintzeko eta herrialde berri batean kokatzean, eman daitekeen laguntzaren adibide bat da.

Eskuliburu honen bidez, GRSk (Errefuxiatuak Babesteko Mundu mailako Ekimena) Kanadaren adibidea, Komuninatearen Babesletza, euren herrialdeetan atxikitzea aurreikusten duten beste eragile batzuentzat, eredu sendoa izatea espero du.

Kanadako ereduak ez da perfektua eta etengabe garatzen doa kanadarrek ikasten jarraitzen duten heinean. Kanadaren adibideak beste partaide batzuk argi-iturri izatea espero bada ere, hauek, Komunitatearen Babesletzako eredu berriak eraiki ditzakete, baina programa berri horiek ez dute zertan Kanadan egin dena erreproduzitu behar baizik eta bere testuingurura egokitu behar dute.

